

**PROCESO DE PARTICIPACIÓN PARA LA
ELABORACIÓN DEL PLAN DE LA DIRECCIÓN
GENERAL DE CULTURA-INSTITUCIÓN
PRÍNCIPE DE VIANA**

**VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEKO KULTURA
ZUZENDARITZA NAGUSIAREN EGITASMOA
BURUTZEKO PARTE HARTZE PROZESUA**

**SESIONES DELIBERATIVAS
NORMATIVA. REVISIÓN DE LA LEY DE
MECENAZGO Y CREACIÓN DE UNA LEY DE
DERECHO A LA CULTURA**

**ERABAKITZE BILERAK
ARAUDIA. MEZENASGO LEGEAREN
BERRIKUSPENA ETA KULTURARAKO ESKUBIDE
LEGEAREN SORRERA**

PAMPLONA, 28 de Octubre de 2016

IRUÑAN, 2016ko Urriaren 28an

AURKIBIDEA

1.-SARRERA.....	1
2.-TAILERRAREN HELBURU ETA METODOLOGIA OROKORRA	2
3.-PARTE-HARTZAILEAK	2
4.-BILERAREN GARAPENA	4
5.-LABURBILKETA ETA AGURRA	8

1.-SARRERA

Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzeak Hiritar Parte-hartze prozesua garatzen ari da Zuzendaritzaren Egitasmoa burutzeko. Prozesu hau Maiatza eta Ekaina bitartean antolatu ziren gaikako bilera sektorialekin martxan jarri izan zen, hauek Nafarroako panorama kulturaren sektore ezberdinen informazioa eskaintzea eta iritzi ezberdinak jasotzea helburutzat zutelarik. Behin bilera sektorialekin amaituta, lurraldekako 7 parte-hartze bilera antolatu egin ziren, Nafarroako zonalde ezberdinetan burutu izan zirelarik eta helburutzat Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoa Nafarroako lurraldean zehar ezagutaraztea eta iritzi plural eta ezberdinagoak jasotzea zituztelarik.

Prozesuaren azkeneko fasea Erabakitzailea da, zinetarako 4 bilera antolatu baitira gai zehatzen inguruan era sakonagoan eztabaidatu eta erabaki ahal izateko. Txosten hau Urriaren 28an INAP eraikineko Areto Zurian burutu izan zen **“Araudia (Mezenasgo Legearen berrikuspena eta Kulturarako Eskubide Legearen sorrera)”** inguruko Erabakitze Bileran jasotakoa biltzen du.

Bilera honetan parte hartzeko deialdia irekia izan zen, deialdia batez ere sormen arloko eta Nafarroako kultura gestoreen ordezkarietara zuzendu izan zelarik.

2.-TAILERRAREN HELBURU ETA METODOLOGIA OROKORRA

“**Araudia (Mezenasgo Legearen berrikuspena eta Kulturarako Eskubide Legearen sorrera)**” inguruko erabakitze bilera Nafarroako Areto Zurian burutu izan zen 2016ko Urriaren 28an 9:30 eta 12:30 orduen bitartean.

Bileran 12 pertsonak parte hartu zuten, batez ere Mezenasgo Legearekin zerikusirik zuten talde eta elkarteak.

Tailerraren **helburuak** ondorengoan ziren:

1. Parte-hartze prozesua erabakitze fasean aurkeztea.
2. Bi gaien inguruen erabakitzea:
 - Mezenasgo Legearen berrikuspena.
 - Kulturarako Eskubide Legearen sorrera.

Erabakitze bilerak ondorengo ordena jarraitu izan zuen:

1. Kultura Zuzendaritza Nagusiaren **agurra eta ongietorria**.
2. **Parte-hartze prozesuaren azalpena** oro har eta **zehazki parte-hartze bilerarena** (arauak, bileraren antolaketa, etab.)
3. Juan Carlos Orenesen, Mezenasgoaren Koordinatzaile Nagusiaren, **Mezenasgo Legearen aurkezpena**.
4. **Proposamenen aurkezpenak** bertaratutakoen eskutik.
5. Talde dinamikaren **parte-hartze lana**.
6. Talde lanaren **bateratzea**.
7. Amaiera eta agurra.

Bilera burutu aurretik, deituak izan ziren pertsonak bileraren metodologia azaltzen zen eta aurretik proposamenak bidaltzeko aukera eskaintzen zuen maila bat jaso izan zuten. Azkenik bi proposamen bidali izan ziren, bata **Iosu Royok (Nafarroako Dantzarien Biltzarra)** bidalia eta bestea **Conchi Cagide Torresek (Asociación Intangia)** bidalia – biak erantsiak -.

Hauek izan ziren erabakitze bileran landu izan ziren gaiak:

1. GAIA- MEZENASGO LEGEAREN BERRIKUSPENA.

BERRIKUSI BEHARREKO EDUKIAK, BARNERATU BEHARREKOAK, EZABATU BEHARREKOAK, ETAB.

2. GAIA- KULTURARAKO ESKUBIDE LEGEAREN SORRERA

A.- ¿ZEIN HELBURU IZAN BEHARKO ZITUEN KULTURARAKO ESKUBIDEAREN LEGEAK?

B.- ¿ZEIN ZUZENBIDE ARLOTAN EZARRI BEHARKO ZEN KULTURARAKO ESKUBIDEAREN LEGEAK?

Bi gai hauek hiru talde ezberdinetan eztabaidatuak izan ziren, ondoren komunean burututako aurkezpen baten landutakoa azaltzeko.

3.-PARTE-HARTZAILEAK

PARTE-HARTZAILEAK	
Izen deiturak	Erakundea
IOSU ROYO GARCÍA	NAFARROAKO DANTZARIEN BILTZARRA
LUIS DURÁN ARREGUI	AMIGOS DE LA CATEDRAL DE TUDELA
PILAR MARTINEZ ARCE	ASOCIACIÓN FOMENTO PATRIMONIO PARA JÓVENES
MARÍA ESTER CAPELLÁN SANZ	ASOCIACIÓN PARA EL DESARROLLO DE LA VALDORBA
AMAIAIJURRA ARAÑA	ETXARRI ARANAZKO UDALA
CONCHI CAGIDE TORRES	ASOCIACIÓN INTANGIA
MARTA GÓMARA MIRAMÓN	ASOCIACIÓN CULTURAL AMIGOS DE CASCANTE "VICUS"
ARANCHA YUSTE JORDAN	ASOCIACIÓN CULTURAL VALLE DE ARANGUREN
JOSÉ LUIS MARTÍN SABATÉ	ASOCIACIÓN CULTURAL VALLE DE ARANGUREN
JESÚS HERNADEZ ARISTU	SOCIEDAD HISPANO-ALEMANA DEL NORTE DE ESPAÑA
TOMÁS JASO MANZANO	CORO IN TEMPORE ABESBATZA
TXEMA LACUNZA ARRAIZA	ASOCIACIÓN ÓPERA DE CÁMARA DE NAVARRA
IGNACIO GOÑI	DEPARTAMENTO DE HACIENDA DE GOBIERNO DE NAVARRA

KUDEAKETA	
Izen deiturak	Erakundea
JAVIER ESPINOSA OCHOA	EIN Arquitectura e Ingeniería Urbana
ABEL DEL REY PALACIOS	EIN Arquitectura e Ingeniería Urbana
ANA SARRADO ARAGÜÁS	EIN Arquitectura e Ingeniería Urbana
MARÍA CAMINO BARCENILLA TIRAPU	DIRECCIÓN GENERAL DE CULTURA
NURIA ÁLVAREZ AJURIA	DIRECCIÓN GENERAL DE CULTURA

4.-BILERAREN GARAPENA

Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza Nagusiko María Camino Barcenilla Tirapuk bertaratutakoak agurtzen ditu eta Javier Espinosa aurkezten du, Parte-hartze Prozesuaren koordinatzailea, EIN Hiri Arkitektura eta Ingeniaritzakoa, prozesuaren laguntza teknikoa.

Ondoren, EIN Hiri Arkitektura eta Ingeniaritzako Javier Espinosa Ochoak bertaratutakoak agurtzen ditu eta prozesuaren azalpen orokorra burutzen du eta baita parte-hartzearen dinamikarena ere. Ondoren Juan Carlos Orenes aurkezten du, Mezenasgoaren Koordinatzaile Nagusia, Mezenasgo Legearen testuinguru eta emaitzen aurkezpen bat eskaintzen duena.

Ondoren bertaratutako pertsonak 2 talde ezberdinetan bereizten dira bileraren parte-hartzeari hasiera emateko.

Azkenik bi taldeetako bakoitzean landu diren arloen gaineko azalpena egiten da.

Ondoren agertzen dira parte-hartze erabakitze bileran egindako ekarpen nagusienak.

1.- MEZENASGO LEGEAREN BERRIKUSKETA
<ul style="list-style-type: none"> ▪ 3. Artikuluari dagokionez, Mezenasgoaren 3 modalitate ezberdinak askoz gehiago zehaztu beharko ziren, eta elkarlan hitzarmenei dagokienez, kasu askotan interesgarrienak direnak, elkarlan hori arrazoitzea askoz errazagoa izan beharko zen eta nolabait diru kantitatearekin berdintzea.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Legea bidezkoa eta zuzena izan zedin Elkarlan hitzarmenen inguruko modalitateari dagokionez, 9.1.b artikulua eraldatu beharko zen, irabazien X marjina jakin bat ezari beharko zen (gutxi gorabehera orokortua), ponderatu beharreko objektua izanda. Gastuaren datu objektibo bat eskaintzea eta irabazte gastuekiko % finko bat ezartzea.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Orokorrean Legeak ez ditu baliabide asko ez dituzten talde edota elkarten alde lan egiten, izan ere, nolabaiteko eginkizun "komertziala" beharrezkoa baita proiektuek bideragarritasuna izan dezaten beharrezkoak diren diru kantitateak lortzeko.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Baldintza guztiak berdindu beharko ziren edota Babesletzaren aurrean Mezenasgoa bultzatzea. Ogasunarekiko zergak arintzea, egungo babesletzarekiko berdintzea edota hobetzea.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Oro har arazo nahiko larria antzematen da Mezenasgo Legearen eta Mecna zigiluaren inguruko ezagutza eta hedapen faltari dagokionez, baita mezenasek izan ditzaketen onuren inguruan ere. Arazo handi hau, batez ere behar gehiago dituzten talde eta elkartek nabaritzen dute, ogasun onurenganako mesfidantza nabaria baita. Hedatze Plan garrantzitsua beharrezkoa litzateke, banku erakundeak (batez ere errenta deklarazioa egin beharreko garaian), publikoa orokorrean, enpresa handiak eta elkarte ezberdinak kontuan hartu behar dituenak. Web orrialdearen promozio kanpaina egin beharra dago, Errenta aitortpena egiteko erabiltzen den simulazio sistema bera erabiliz. 4. Xedapen gehigarria era eraginkorrean erabiltzeak zabalera eta emaitza zehatzak izango zituen hedapen eta zabaltze kanpaina eraginkorra burutzea suposatuta luke. Era berean, 5. Xedapen gehigarria berrikusi eta osatu beharko litzateke, izan ere, aplikazio informatikoaz at, honen zabalpena eta ezagutzea beharrezkoa baita.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Nahaste handia dago babesletza eta mezenasgoaren artean, ezberdinduagoa egon beharko litzatekeelarik.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Mezenasgoa diru kantitatetan justifikatu eta baloratzeraikoan zailtasun handiak daudela aipatzen da, agente edota elkarte ezberdinek eskaintzen duten laguntza dirutan neurtzea oso zaila suertatzen baita
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zailtasun hau bereziki esanguratsua da elkarte txikientzat, erakunde handienak profitatzen direlarik baliabide eta medio handiagoak dituztelarik eta hauek diru kantitatetan justifikatzea posible dutelarik.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Espeziatan egindako ekarpenen inguruko araudia garatzea beharrezkoa zela aipatzen da, modulu taula jakin bat izango zuena, non bolondresen ordu kopurua, aretoen alokairu kantitateen kopuru orokorra, tresneria, lekualdatzeak, etab. jasoko ziren.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ 2.2. Artikulua: "kultura proiektuen kontsiderazioa" dela eta, ez daude bere baitan ez dira kultura elkartrukeak agertzen eta bertan egon beharko litzateke.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ 4. Artikuluari, zehazki pertsonen dagokienez, ez dira kultura profesional guztiak agertzen,

1.- MEZENASGO LEGEAREN BERRIKUSKETA
<p>artistak soilik agertzen diren heinean eta beste arloetakoak ere agertu beharko litzatekeela uste da (kultura gestoreak adibidez).</p>
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Legearen 4. Artikuluak biltzen duenaren inguruan Nafarroako Kultura Cluster bat sortzea agertu zitekeen enpresen bultzatzearen bitartez.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kultura mezenasgora I+G+B gehitu beharko zitzaion, proiektuen arteko koordinazioa hobetzea ahalbidetuko zuena.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kultura enpresen barneratzea kontuan hartu beharko zen.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Legeak oso ongi biltzen ditu amateur arloko berezitasunak, baina praktikan ezer gutxi garatu izan da.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ 6.2. Artikuluari dagokionez, zehazki h letrari, "kultura hizkuntzen barneratzea" esaten den tokian "kultura ikerketa eta berrikuntzaren barneratzea" jarri beharko zen.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Artikulu horretan bertan ez dira era zehatzean azaltzen kultura ekintzaren garrantzia eta oihartzuna neurtzeko irizpideak eta legean askoz argiagoa izan beharko zen edota araudia mailan gehiago garatzea.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ 2. Xedapen gehigarriari dagokionez, kontraesantzat ulertzen da mezenasgo kontzeptuarekiko mezenasei errekonozimendu publikoa eskaintzea hauek anonimoak izan beharko zirelako.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Era berean, xedapen horretan bertan diagnostikoari egite zaion erreferentzia ez da garatua izan, edo gutxienez ez zaie erakundeek aurkeztu.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ 4. Xedapen gehigarriari dagokionez, informatikaren aplikazioari dagokionez, hau martxan ez dagoela eta eskuragarri ez dagoela azpimarratzen da. Aplikazio hau crowdfunding aplikazioen antzera garatu beharko zen eta informazio edota tresnak beharko zituen eskura errenta aitormena egiterakoan datuen eskuragarritasuna erraztu zedin.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ 5. Xedapen gehigarriari dagokionez, eskaintzen den informazioa ez dago enpresa eta beste erakundeek dituzten benetako beharrei egokituta.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Mezenasgoaren sustapenaren erantzukizuna elkarteen eskuetan utzi izan da, Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna izanda beti ere, enpresa eta erakundeak hezi behar dituenak mezenas gisa lan egin zezaten.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zentzu honetan Ogasunak enpresak Nafarroan egotea bultzatu beharko luke hauek Legeaz profitatu ahal izateko.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Lege hau baliabide eta medio gehien dituzten elkarte eta erakunde handientzat onuragarriagoa da. Honi lotuta Legeak mikromezenasgoaren aukera mugatzea proposatzen da erakunde handienak, Eliza Katolikoa barne, eskatu ez dezaten.

2.- KULTURARAKO ESKUBIDE LEGEAREN SORRERA

- Oro har, informazio eta zehaztasun gabeziak direla eta, legearen edukiak baloratzeko zailtasuna aipatzen da, izan ere, kultura eskuragarritasuna errazten duten hainbat lege onartuta daude.
- Bestalde, Kulturarako Eskubide Legea erabat beharrezkotzat ulertzen da ondorengo helburuak bete daitezen:
 - **Kultura lanbideak bultzatu eta sustatzea, edozein eran.**
 - **Kultura arloa berrindartzea.**
 - **Sormen arloa ikusgarriagoa izatea.**
 - **Kultura Klusterra sortzeko baldintzak sustatzea.**
- Kultura Kluster delako horretan, **Nafarroako Gobernuak elkartzailerako funtzioa** beteko zuen eta kultura arlo ezberdinak elkartuak izango ziren.
- Kulturarako Eskubide Legearen beste helburuetariko bat **barneratze soziala bultzatzeko tresna** izatea beharko litzateke, kultura forma eta espresio berriak barneratuz.
- Kulturarako Eskubide Legea **Nafarroako errealtate sozial berrira** moldatu beharko zen, azken urteetan eman izan diren aldaketa ekonomiko, sozial eta demografikoak aintzat hartuz. Hau burutzeak agente eta elkarte berrien barneraketa, baita kultura eduki berriena ere ekarriko luke.
- Kulturarako Eskubide Legeak **eskuordetze funtzioa** onartu beharko zuen.
- **Zonalde jakinetan burutzen diren kultura ekitaldietan egileen eskubideen** erabilera zehaztu edota deuseztatu beharko ziren, batez ere biztanleria eskaseko herrietan.
- Hiritargoak **kultura jardunaldi eta ekitaldien kostuaren informazioarekiko eskuragarritasun handiagoa** izan beharko luke, informazio hau gardenagoa izanda.
- Finantzaketa publikoa duten kultura ekitaldiak **hiritargoarenganako onura** izan beharko zuten, hauetaz gozatzeko eskubidea izanda.
- Kultura ondarearen jabea argi eta garbi egon beharko zen biztanleriaren eskuragarritasunari begira, batez ere finantziario publikoa izan baldin bada.
- **Herri mailako biztanleriaren kulturaren eskuragarritasuna** bermatu beharko zen
- **Herrietako ondarea baloratu** beharko zen.
- **Publiko kritiko baten sorrera** bultzatzeko neurriak barneratu beharko ziren.

5.-LABURBILKETA ETA AGURRA

Behin lan dinamika amaituta Parte-hartze teknikariak bileran parte-hartu duten pertsonei eskerrak ematen dizkie eta hurrengo parte-hartze tailerretan parte-hartzera gonbidatzen ditu, baita Nafarroako Gobernuak Gobernu Irekiko web orrialdea eta participacioncultura@navarra.es mailaren bitartez ere.

Parte-hartzaileei ebaluazio galdetegia betetzeko eskatu ostean, dokumentuaren borradorearen osaketaz informatzen zaie hau irakurtzeko inork bertan zuzenketarik egin nahi izango balu.